Artzape

getariarron topagunea

2018ko abendua

187. zbk

ALAIN IRAZUK EGITEKO KILOMETROAK DITU ORAINDIK

AINTZANE EZENARRO, OROIMENAREN ERANTZUKIZUNA

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K
KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

12-15 Elkarrizketa: Alain Irazu

26 Getariako bazterrak: Askizuko iturriak 100 urte

4-5	Iritzia: Aitor Irigoien
5	Zuen txokoa
6	Salberak Itsaskabrari
7	Ize ez, ta berriketan
8-11	Elkarrizketa: Aintzane Ezenarro
12-15	Elkarrizketa: Alain Irazu
16	Elan Euskadi
17	Historiaren katebegiak
18	Bi hitzetan
19	Diseinua
20-21	Harritarten txutxupeka
22-23	Txapakalezka
23	Getariako hitza
24	Komikia
26	Getariako bazterrak
28	Agenda

2018ko abendua 187. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Joseba Fuentes.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

AITOR IRIGOIEN

Justiz... zer?

"Era guztietako jendea aurki daiteke bertan. Gazte eta beteranoak jantokian. Natibo zein atzerritarrak patioan. Guztiak sar daitezke burdinsarezko egoitzara. Guztiak. Dirudunak izan ezik".

Urte batzuk igaro dira unibertsitatean hasi nintzen 2001eko udazken hartatik. Orduko hainbat oroitzapen fresko mantentzen ditut, ordea, memorian. Ondo akordatzen naiz, adibidez, Zuzenbideko lehen klasean, irakasleak, ziur eta zorrotz, bota zuen esaldi hartaz: "Zuzenbideak ez du esan nahi zuzena denik; justizia ez da beti justua". Harrituta utzi gintuen, ez genion zentzurik hartzen. Hainbeste apunte eta teoria artean, ez ginen jabetu bera teoriaz baino, praktikaz mintzo zenik.

Denborarekin, haatik, esan nahi ziguna gero eta hobeto ulertzen joan naiz, hasieran zentzugabea zirudienak atzean ezkutatzen zuen guztiaren jabe egiten, pixkanaka. Horretan, egiari zor, asko *laguntzen* du Espainiakoa bezalako estatu batean bizi behar izateak, bertako zuzenbide estatuaren, justizia-sistemaren menpe. Aipatu esaldia egiaztatzen duten hamaika adibide aurkitu izan baititut urte hauetan guztietan. Oso urrun joan beharrik izan gabe. Azken urteko, edo hilabeteetako, edozein egunkari hartu eta berriak irakurtzea aski da horretarako.

Zergatik izaten dira batzuk epaiketarik gabe —eta ondorioz, errudun izendatu gabe— urte luzez "prebentiboki" kartzelaratuak, eta beste batzuk, aldiz, epaiketan errudun izendatu arren, indultuak edo baimenak medio, ez dute inoiz kartzelarik zapaltzen edota hilabete oso gutxiren baitan kalean dira berriz? Zenbat gaztek pasa behar izan dituzte urterik onenak barroteen artean ondoren errugabe izendatzeko? GALeko kideek eta buruek, alabaina, zenbat urte egin dituzte preso, hilketa ugariren errudun deklaratu ostean?

Zer dela-eta epaiketa batzuk ekintza gertatu eta egun —edo aste— oso gutxitan, presaka, egiten dira, eta aldiz, beste epaiketa batzuk etengabe, urteak eta urteak, atzeratzen, betikotzen?

Nolatan ezer jan gabe egunak daramatzan eskale bati, ogitarteko bat lapurtzeagatik hiru urte t'erdiko espetxe zigorra eskatzen dioten berberek, ondoren politikari, enpresari, bankako buru edota monarkiako kideak aske uzten dituzte, korrupzio trama desberdinen bidez milaka milioi lapurtu dituztela frogatu arren?

Zein zentzu du faxismoaren aurkako adierazpenak edo abestiak egiten dituzten artistak epaituak, espetxeratuak edo erbesteratuak izateak, frankismoaren gorazarre egiten duten elkarte ultraeskuindarrak (Fundacion Francisco Franco, kasu) edota keinu naziak egiten dituzten norbanakoak inpunitate osoz, lasai eta harro dabiltzanean?

Nola uler daiteke galdeketa bat antolatzeagatik eta hautestontziak jartzeagatik Parlamenteko agintariei eta gizarte zibileko ordezkariei 25 eta 17 urteko espetxealdia eskatzea eta egun berean bakean zeuden herritarrak biolentzia basatiz erasotu eta jipoitu zituzten poliziei, aldiz, omenaldiak egitea?

Nola azal daiteke 2016an taberna batean, gauez, izandako borrokaldi soil batengatik hainbat gazte, terrorismoaz akusaturik, 13 urtetarako kartzelan egotea, eta aldiz, 2012an, Bilbon futbol partida baten aurretik poliziak gomazko pilotakada batez erail zuen mutilaren kasua oraindik epaitegietan egotea, sei urtetako umiliazio, antzerki eta hainbaten isiltasun konplizearen ostean?

Nola da posible, eskutan hainbeste proba izan arren, Nagore Laffage bortxatu eta erail zuena edota La Manadako erasotzaileak aske egotea? Edota haur lapurtuen erantzule nagusietako bat zigorrik gabe

geratzea, delitua preskribatu omen delako? Opuseko nahiz Elizako kide aipagarriek eta poliziek zein militarrek dena baimenduta dutela eta edozer egin dezaketeela zehazten duen lege gorenen bat ote dago?

Zer dela eta —ustez— aldaezinak diren epai eta ebazpen ofizialak aldatzeko bat-bateko erraztasuna eta azkartasuna, kaltetuak herritarrak izan ordez banketxeak direnean?

Asko maite dudan pertsona batek askotan aipatu izan dit, zoritxarrez ez dela epaitzen egiten dena —ekintza—, ekintza nork egiten duen baizik —pertsona—. Eta horrexek berak azal ditzake aurrez egindako galdera guztiak.

Lan handia du Espainiak bere (in)justizia sistema zuzentzen. Handiegia gauzatu ahal izateko, nire iritziz. Zerbait oso gaizki baitoa diruak justizia eta epaileak eros ditzakeenean; errudunak zigortu beharrean babesten eta justifikatzen direnean; biktimak zaindu ordez mespretxatu egiten direnean; legearen aurrean denok berdinak izatearen printzipioa mila zatitan puskatzen denean; Europako epaitegiek behin eta berriz atentzioa deitzen eta epaiak zuzentzen dizkizunean; justizia-sistemak herritarren sinesgarritasuna galtzen duenean; justizia bera zientzia fikziozko zerbait izatera igarotzen denean. Hots, irakasleak aipatu moduan, Justiziak justizia egiteari uzten dionean.

ZUEN TXOKOA

Atal hau herritar, talde zein elkarteek zuen ekarpenak egiteko da. Zuen iritzi, gutun, argazki, zorion-agur (bazkide ez direnek 4€), esker on edota agur hitzak argitara ditzakezue. Testuek gehienez 180 hitz izan ditzakete eta ez da irainik onartuko. Ekarpenak jasotzeko azken eguna hilaren 23a izango da, ez da bermatzen egun hori baino beranduago jasotako lanak argitaratzea. Testuak artzape@topagunea.com helbide elektronikora bidali edo Txeruko postontzian utzi daitezke.

Eskerrik asko

Jada pasa da ia urtebete bizi izan nuen istriputik. Zenbat bizipen, sentsazio, emozio... eta hainbeste eskertzeko!

Hasteko, eskerrik asko Getariari, herri bezala hain ondo jokatzeagatik. Hau gertatu zitzaidan arte ez nintzen inoiz konturatu zein elkartuta gauden herri bezala. Esan zidaten ospitaletik bertara bueltatzea zaila izango zela, "herri txikia izateak duen alde txarra baita denek albiste ororen berri dugula". Lehen egunetan nahiago nuen etxean geratu, pentsatzen bainuen, ateraz gero, galderez josiko ninduzuela; nekatuta nengoen horretarako. Pixkanaka hasi nintzen ateratzen, eta segituan ikusi nuen beharrezko intimitate hori errespetatu egiten zenutela. Beraz, horregatik ere, eskerrik asko.

Oraindik hunkitu egiten naiz San Silbestre, Errege Mago, Olentzero zein Maridomingiren egunetako eta abarreko bideoak edota etxera bueltatu nintzen arte piztuta mantendu zen Gabonetako argi horren argazkia ikustean.

Mila esker nire familiari momentu gogor horiei hain ondo aurre egiten jakiteagatik, indarragatik, eta hainbeste maitasun emateagatik. Ni ausarta izan banaiz, zuek ausartak bider bi izan baitzarete.

Eskerrik asko Getaria, eta eskerrik asko Nika, opari txiki-handi horiengatik. Eskerrik asko Gaztetxeari ere, posible zuten laguntza eskaintzeagatik. Nire lagun guztiei eta Urritzakoei. Eskerrik asko Keta istripua izan nuenean kartel handi hura heltzeagatik, eta orain inoiz baino gehiago, *snowboard*ean aritzeko emandako babes eta erraztasunengatik.

Eskerrik asko guztioi ni hain presente izateagatik, zuen energia horrek ere laguntzen baitu momentu zailak eramangarri egiten. Norbait ahazten bazait barkatu, eta eskerrik asko berari ere.

Irati Idiakez

ZIGOR SAIZAR

JON ANDER DE LA HOZ

Guras.o.s., ai aita!

1977. Zarauzko hondartza. OHOko 1. mailatik hasi eta 8. maila arteko neska-mutilak futbolean. Narroseko Jauregitik hasi eta ia kanaleraino futbol-zelaiak marrarik gabe marraztuak, jokalariek auzolanean egindako hondarrezko menditxoek mugatzen ziaten jokalekua. Euria, hotza, itsasoko haize bortitza... baina 6 urtetatik hasi eta 14 urtetarainoko neska-mutilak kamisetaren azpitik xira jantzita, txorakeriarik gabe, lehia sanoan —bai, lehian—. Ertzetan entrenatzaileak; gurasorik apenas. Epailearekin arazorik ez; jokalarien artean ere istilurik ez.

2017. Zarauzko hondartza. LHko 3. mailatik hasi eta 6. maila arteko neska-mutilak futbolean. Eguraldi txarrarekin, ziklogenesi lehergarria izendatzen ditek, eta jardunaldi osoa bertan behera. Eguraldi lehorrarekin, 8tik 12ra bitarteko neska-mutilak Adidas eta Nike zapatila fosfoak soinean. Ertzetan bateko eta besteko gurasoez osatutako *hooligan*ak, Anoeta edo San Mamesen baleude bezala, arbitroari "loreak" botatzen, elkarri "maitasun hitzak" esanez.

1978. Harritarte, Katukale eta Kale Nagusian 7-8 urteko mutil koskorrak tokarikoka jolasean. Bitartean askaria janez: txorixo-panplona txokolatiakin batek, mantekila azukreakin bestiak, mortadela zuenik ere bahuen... eta honek gustukoa ez bere bokadiloa. Han ikusten dik herriko transportistan kamioia atzeko loneta irekita; alde batera begiratu... bestera... inor ez! Jaunartzea egitea doan kristau ona bezala, askariari muxu eman eta kamionetara. Derrepentean, BLAAAAST! Sekulako masailekoa! Mutil koskorra lotsatuta: "Ea nire gurasoak ez diren enteratzen, bestela ederra zakat".

2018. Herriko parkean 3-6 urteko haurrak jolasean; gurasoak bankuan eserita. Parkearen ondoan belardia, landareak, zuhaixkak. Haur batzuk aspertu dituk txirristan gora eta behera. Belardira zihaztek. Landareei ostikoak ematen zizkiotek, zuhaixken adarretatik zintzilikatuta Tarzanena egin, dena txikitu arte. Gurasoek ikusi diate guztia; ez dituk bankutik altxa. "Ikusiko dezue munizipala etortzen bada!" marrua egin dik batek bankutik altxa gabe. Albotik pasa den herritar batek: "Edozeinek kargu hartzen ziek, erantzun txar bat jasotzeko ere...".

Aita, kaguen S.O.S!

2004. Zarauzko hondartza. Potrobixarrak aspaldi hasitako mutil andana, emakumerik ez. Narroseko Jauregitik hasi eta ia kanaleraino futbol-zelaiak, marrak hala moduz marraztuak (ordu parea lehenago Txanelan eskatutako zerbeza botilarekin marraztuak, akaso)... Auzolanetik gutxi, partida hasi ostean, bereziki. Euria, hotza, itsasoko haize bortitza... baina 18 urtetik hasi eta 40 urte pasarainoko mutilak —neskarik ez— kamiseta hutsean, eskarpinik jantzi gabe eta txorakeriarik gabe jokoan —zentzurik okerrenean—, lehia ez-sanoan —bai, lehian—. Ertzetan entrenatzaile papera egiten duten adiskideak. Gurasoak, alerik ere ez. Epailearekin arazoak besterik ez. Jokalarien artean, lehia pertsonalik ankerrena ere futbolaren aitzakian azaleratuta. Mundo Deportivoren ale batekin epaileari joka aritu den getariarren bat ere bai tartean.

2017. Zarauzko hondartza. LHko 3. mailatik hasi eta 6. maila arteko neska-mutilak futbolean, baita helduagoetan ere, eta eskerrak! "Eguraldi txarrarekin, ziklogenesi lehergarria izendatzen ditek eta jardunaldi osoa bertan behera. Eguraldi lehorrarekin, 8 urtetik eta 12ra bitarteko neska-mutilak Adidas eta Nike zapatila fosfoak soinean". Hori aldatu dek, sozio. "Ertzetan alde bateko eta besteko gurasoez osatutako *hooligan*ak. Anoeta edo San Mamesen baleude bezala arbitroari 'loreak' botatzen, elkarri 'maitasun hitzak' esanez...". Ile gutxiago, zimur gehiago eta gerri buelta oparoagoak, baina 13 urte atzera begirada botaz gero, izen eta abizen bereko pertsonak. Haietxek baitituk orain gurasoak.

Edozeinek kargu hartzeko ere, hire testua moldatzeari utziko zioat, Zigor. Kontuan hartzekoa dek hire planteamendua. Baina ez duk ez urte, ez hamarkada kontua. Belaunaldi kontua dek, izatekotan, zeina aldi berean gizartearen isla den. Gure kontsumo ohiturena, gure begi-belarriek jasotzen dutenena. Gogoratzen krestaren garaiak, askatasunaren izenean politikoki zuzena baztertzeaz eta bestelakoez? Bada, hori eta errespetu faltaren arteko alanbre finaren gainean zutik mantentzea lortzen duena, (plaieroetako) kanpeon.

UXOA IRIGOIEN

Jon Esnal Alegria

1936ko otsailaren 6an jaio zan Getayan. 18 urte zitula, Batxilergo ikasketak Donostiyan bukau ta Ingalaterra aldea jun tzan, abentura gogoz, Hendaian trena hartuta. *Commercial College*n ikasi ta handik urte t'erdira Venezuelara jun tzan. 1963an Getaira itzuli zan ta etxeko enpresa kontserberuan lanian ibili ta geo, kofraiko idazkari lanetan aritu zan 14 urtez.

Abertzaletasun ta askatasun egarriz, 1977an politikan sartu zan, EAJn. Getaiko alkate orde, askotan tokatu omen zitzaion alkate funtziyua betetzia. Aurrenengo legealdiyan diputatu forala izandakua da; Batzar Nagusitako kide, idazkari eta lehendakari aritutakua. Hiru seme-alaban aita ta hiru biloben aitona, "beayek dia nere altxorrik onena, beayek gabe ilusiyoik ez!". Tartekare jardute omen dia eskolatik etortzian "*Hello!*" esanez inglesez berriketan!

Gizon polifazetikua deu Jon, bai hoixe! Hitz eta pitz gustoa eon gea bere etxeko epeltasunian, majiñat kontu in txeu! Txio-Txio plazan daon Elkanoi buruzko abenturare kontau dit.

1954ian, 18 urte zenitula Ingalaterra jutia erabaki zenun. Nolatan? Ingelesez nola moldau zinan?

Nik eskau nioen gurasuai kanpoa jutia. Beti euki nun egarri hori. Egiya esan, ze ikasi nahi nun ideyik ez nekan, *Derecho* o... Garai hartan e ikasketak in arren beste zozertan zebilen lanian jendia. "Abogauake tranviero zebiltzak Donostiyan!", halaxe esate zuen. Administraziyua gustatze zitzaiten ta trena hartu ta Inglaterra jun nitzan. Taxistai helbidia erakutsi ta aurrea! Base bat banekan inglesez ta ondo moldau nitzan. Goizetan ikasten ta arratsaldetan Dulwich inguruko launakin gustoa ibiltze nitzan! Cambridgeko ingeles tituluare atea nun. Patrikako dirua lortzeko udan bi hilabetez ospital baten jardun nitzan lanian.

Handik urte t'erdira, maletak in ta Venezuela martxa. Etzinan geldik eoteko mutila! Getaira ite al tzenun bixitik?

Osaba bat bizi nun han ta baita nere anayare. Barkua hartu ta 19 egun behar izan nitun hara ayatzeko, Caracasea. Lana neuk bilau nun, *broker* batei launtzen burtsan. Geo, enpresa berdinian, *petroliyoko subkontratista* batian aritu nitzan. Aipatu, Jesuiten unibertsitatian *Empresariales* ikasi nula, komertziyuakiko interesa neukan ta. Getaira bitan etorri nitzan: aita hil tzitzaitenian ta udako oporretan. Udan pare bat hilabete pasatzeko asmoz etorri, ta... sei hilabete pasa! Pena eman tzin, bai, bueltatziak.

Txio-Txio plazako Elkano zorretan omen dao zurekin...

Frankistak eraman zuen Donostira, esaten zuenez, balak iteko nahi omen zuen. Azkenian, ez omen tzun baliyo, ta Paseo Berriyan jarri zuen. Kofraya ta udaletxia ibili zian ekarri nahian baino kasoik etzioen iten. Egun batian, lagun batekin hitz ein nun, kamionerua bea, ta goizeko 06:00tan, ilunpian, haize gogorra ite zun gañea, hara jun ta bueltan ekarri genun. Inguruan zebilen jendiak "¡*Ladrones!*" esate ziguen! (biyok algaraka). Donostiko udaletxetik deitu zuen hurrengo egunian, baina gure Elkano guria zan ta herriyan geau zan, bere tokiyan!

A ze abenturak! Txoko txiki honetan sartzeko mila komeri izan txut! Mila esker, Jon, plazer bat izan da!

AINTZANE EZENARRO

"KONTATU ETA INDARKERIA EZ DELA BIDEA HELARAZI BEHAR DIEGU GAZTEEI"

Kazetaritza eta Soziologia Politikoa ikasia, gazterik hasi zen gizarte mugimenduan eta politikan. Zinegotzi izan zen herrian bi legegintzalditan, handik egin zuen salto Gipuzkoako Batzar Nagusietara eta Eusko Legebiltzarrera. Gaur egun, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria da; biktima ororen aitorpena eta gazteenei kontatuko zaien historia ditu kezka iturri.

TESTUA
IURE EIZAGIRRE

Hurbilekoenetik hasteko, Memoriaren Eguna izan da azaroan. Aurten, "Memoriaren pedagogia kritikoa. Euskal gizartea: argiak eta itzalak" izan da leloa, zeintzuk dira euskal gizartearen argi-ilunak?
Asmoa zen iraganera begiratu eta ikustea hainbeste indarkeria izan den herri batean gizarteak zer egin duen, edo zer ez duen egin.

Testu bat proposatu genuen gogoeta hori eragiten hasteko, besteak beste, kontuan hartuta, batez ere 70-80ko hamarkadetan indarkeria jasaten zuten biktimak bakarrik egon zirela, inongo babes sozialik gabe eta kasu askotan, gainera, baztertuak. Horrek zer pentsatua eman behar digu gizarte bezala.

Herritar xumeok ere egin behar al dugu gogoeta hori?
Bai. Bakoitzak daukagu ardura gure mailan, egin dugunaren neurrian, ez gehiago ez gutxiago.

Elkarbizitzaz eta giza eskubideetan oinarritutako bakea eraikitzeaz hitz egitean, ez dira kanpoan bakarrik bilatu behar ardurak, talde armatu edo terroristetan zein erakundeetan; ez, ez. Gutariko bakoitzak zer egin dugu gure herrian? Nola jokatu dugu desberdin pentsatzen zuenarekin? Aukera politiko edo sozial desberdin bat egiten zuenarekin? Atentatu baten aurrean kalera ateratzen zenarekin?

Horrek guztiak ere eragin du haustura eta horretaz ere gogoeta egin behar da. Azken finean, bi oinarritan eraiki behar dugulako elkarbizitza: batetik, giza eskubideak, eta bestetik, aniztasunaren errespetua.

Aro berriaren isla al da Memoriaren Egunean alde ezberdinetako biktimak batzea?
Biktimak ez dira inongo aldekoak; izatekotan, biktimarioak izan dira alde batekoak zein bestekoak. Biktimak izan dira beraien familiako norbait hiltzeko zorte txarra izan dutenak. Ez du inporta nork, baina senitartekoak hil dizkiete.

Aintzane Ezenarro, Gogoraren ekitaldi batean.

"Biktimei oso egoera parekoak bizitzea egokitu zaie, ondorioz, enpatia berehalakoa da"

Memoriaren Egunean parte hartu zuten bost biktimak, ekitaldiko aurkezlearekin.

Aspaldi hasi ginen biktima ezberdinen arteko elkarrizketak sustatzen. Mahai-inguru mordoa egin ditugu azken urteetan, eta beti ondorio berera heltzen gara: oso antzekoak dira. Oso egoera parekoak bizitzea egokitu zaie, ondorioz, beraien arteko enpatia berehalakoa izaten da.

Hitz egin zutenek 5, 10, 15 urte zituzten hori gertatu zitzaienean, hau da, belaunaldi berria da. Erakutsi zuten oraina direla, ez iragana, eta beraiei gertatutakoa ezagutu egin behar dugula, beraiekiko enpatia sentitu behar dugula.

Mingainari hozkarik egin gabe, egia guztiak esan zituzten; aldi berean, etorkizunerako mezua utzi zuten: "Gu gai baldin bagara elkar ulertzeko eta elkarrekin egoteko, pasa duguna pasa eta gero gorrotorik gabeko mezuak emateko, zuek ez daukazue eskubiderik gorrotoan bizitzeko".

Mezua eta bidea horiek dira: gertatu den guztia garbi azaltzea, kontatzea, gazteek ezagutu dezatela, eta ez frankismoan bezala, isiltasuna. Ez dizkiegu gertaera historikoak bakarrik kontatu behar, helarazi behar diegu baita ere bidea ez dela indarkeria, ez dela gorrotoa. Hor dago gure belaunaldiaren egiteko nagusietako bat; gure betebeharra da, gizarte, guraso, heldu eta erakunde bezala.

Biktima izateko ezinbestekoa al da heriotza bat izatea?
Ez, biktimen aitorpenerako legea Estatuak arautua du. 1999an egin zen eta 2011n osatu. Zaurituak ere biktimak dira; hirugarren batek arrazoi politikoengatik eragindako bortxa eraso bat jaso duen edozein da biktima.

Legearen arabera, talde terrorista baten erasoak jasandakoak ziren biktima; indarkeria polizialarenak kanpoan geratzen ziren. Horregatik sustatu genuen Parlamentuan egon zedila horien aitorpenerako legea.

2012an dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Asko borrokatuta lortu genuen eta horren bidez, 1978ra bitarteko biktimak aitortu zituen alderdi sozialistaren gobernuak, nahiz eta batzuek nahi genuen gaur artekoak onartzea. Gero, lege izatea sustatu genuen eta, azkenean, 2016an onartu zen Eusko Legebiltzarrean.

Legea oztopatuta egon da Konstituzio Auzitegian, PPk helegitea jarri zuelako. Madrileko gobernu aldaketarekin lortu dugu errekurtso hori kentzea eta memento honetan badago batzorde bat martxan biktima horiek artatu, beraien testigantzak jaso eta aitortzaren bidea irekitzeko.

Gertatua gazteei kontatu beharra aipatu duzu lehen. Horretarako da "Herenegun" hezkuntza programa. Zertan datza?

Bost urte daramatzagu biktimario ezberdinetako biktimak eskoletara eramaten. Haiekin elkarrizketa bat edukitzeko aukera izaten dute eta denek eskertzen dute zuzeneko harremana.

Horrek, ordea, galdera ugari sortzen ditu eta konturatu ginen bazela gabezia bat: nahiz eta 4. DBHn eta Batxilergoko 2. mailan Historia Garaikidea irakasgaia izan, ez da espazio tenporal hori ukitzen.

Heziberri curriculum berria egindakoan, gaur arteko historia txertatu genuen derrigorrezko materia gisa. Baliabide batzuk eskaintzea izan da gure proposamena, horrek ez du esan nahi eduki hori derrigorrez guk sortutako materialekin landu behar denik.

EITBk egindako ordubeteko helduentzako dokumental batzuk zeuden 60tik 2000rako historia hamarkadaka kontatzen zutenak. Laburtu egin ziren, garai bakoitzeko gertaera historiko garrantzitsuenak jasoz.

Aparte, azken 60 urteak idatzizko materialean laburtu eta unitate didaktiko batzuk sortu ziren, helburu pedagogikoekin. Pixkanaka galdera etikoetan sartzen gara: "Zergatik uste duzu ez dela zilegi indarkeria erabiltzea beste pertsona baten kontra?". "Uste duzu hiltzea zilegi dela?" aukera ez dago galderetan. Desberdina da, eta horrekin nahi dugu batetik, historia ezagutzea eta bestetik, azterketa kritikoa egitea giza eskubideen urraketen gainean.

Zalaparta eragin du.

Zirriborroa egin eta ekarpenak egiteko tarte bat ireki genuen. Epe amaiera aldera *El Correo*k azalean atera zuen gaia eta Madrilgo zein Estatuko biktimen hainbat elkarte oldartu egin ziren, ETAren historia zuritu nahi dugula esanez. Hezkuntza arlotik zein biktimen aldetik izan dira ekarpenak, indibidualki, baina Parlamentura eramanda, PP hau apurtzera joan zen eta Bildu ere bai.

Guk jarraituko dugu ekarpenak txertatzen eta ahalik eta gauzarik irekiena egiten, bi mugarekin: ez dugu onartuko indarkeriarik justifikatzea ezta inork gertatutako zerbait ez agertzea nahi izatea ere.

Zergatik hartu da 60ko hamarkadatik aurrerako tartea?

Orain eskoletan, batez ere, Gerra Zibila azaltzen da eta ez beti. Lehen gerraostea ere 1960tik aurrerakoa baino gehiago kontatzen da.

Beste arrazoi batzuk ere badaude: 60an sortu zen ETA, frankismoaren bi garaiak bereizten dira, Agirre lehendakaria 59an hil zen, frankismoaren egituran aldaketa politikoak izan ziren, biktimen aitortza legeak 60an hasi ziren eta Estatuko memoriaren legeak ere

"Desagertu asko ez ditugu berreskuratuko, ez dugu jakingo non dauden: urte asko pasa dira, gure geografia aldatu da..."

Aintzane Ezenarro, Maite Alonso eta Jonan Fernandez, *Herenegun*eko materialaren aurkezpenean. /Arg.: Gogora.

60tik aurrera beste artikulatu bat dauka. Hor badago muga bat.

Izugarria da: gaur egun 16-17 urteko gazteei galdetzen diezu zer dakiten terrorismoaz eta "zer edo zer erlijioarekin zerikusia duena" erantzuten dute. Hau da, yihadismoaz ari dira.

Horrek ere adierazten digu zer egiten ari garen: isiltasun ariketa bat, gure aiton-amonei leporatu izan dieguna. Arrazoi gutxiagorekin ze haiek beldurra zuten, frankismoaren beldurra, eta orain ez daukagu zertan eduki.

Memoria historikoa ere lantzen da Gogora Institutuan. Nola?
Bi lerro nagusi ditugu: ikerketa historikoa eta desagertuen bilaketa.

Orain izen-abizenak jartzen ari gara gerran hildakoei, herri guztietako zein elizako erregistroetan sartuta. Badakigu batzuk Katalunian edo Andaluzian hil zirela, beraz, lana ez da hemen bukatzen.

Horrez gain, desagertuen bilaketa egiten dugu Aranzadirekin, hau da, deshobiratzeak mendian, azterketa indibidualak norbait desagertuta dutela dioten familiekin...

DNA bankua ere sortu dugu, deshobiratzeetan datuak gurutzatzeko. Hala ere, desagertu asko ez ditugu berreskuratuko, ez dugu jakingo non dauden: urte asko pasa dira, gure geografia aldatu da...

Gogoraren hirugarren hanka dira oroimen ekitaldiak, familiek jaso dezaten hainbeste urteetan sentitu ez duten aitortza hori.

Familian bizi izan duzue egoera.
Aitaren bi osaba desagertu ziren gerran. Argazki bat bakarrik genuen eta haien informazioa lortu dugu. Orain badakigu non hil ziren: Katalunian.

Gerra Zibilean Limpiaseko (Kantabria) hilerrian ehortzitakoei egindako omenaldian. /Arg.: Gogora.

Gure izekoek eta aitak dakite zenbat sufritu zuen beraien amak. Badago halako lasaitasun bat, "behintzat badakigu non dagoen" esatea, baina tristura askorekin gogoratzen da. Urte oso gogorrak izan ziren, eta isilik pasa behar izan zituzten. Galtzailearen arantza hori: galtzaile, isilik eta, gainera, zerbait txarra egin izan balute bezala, bakarrik demokraziaren alde borrokatu zutenean.
Ez da dena poza familiarra berreskuratzen denean, baina bada ziklo bat ixteko modua.

Etxera etorri garenez, Getarian izan zenuen lehen kargu politikoa.
2003an hasita, bi legealdi egon nintzen zinegotzi gisa, Aralarretik.

Uste dut edonork bizi beharko lukeela esperientzia hori, zure herriaren alde egindako lan eskerga da. Zinegotzi izateko apustua egiten dutenei eskerrak eman behar dizkiegu herritar gisa. Demokrazia aurreratuetan oso garbi dute, hemen, aldiz, askotan kritika besterik ez zaie egiten.

Ordainean jasotzen dena, bada ikasketa prozesu ikaragarri bat ere; ezberdinekin benetan belarriak zein burua irekita hitz egiten baduzu, asko ikasten duzu.

Gainera, politika da komunitateko erabakietan parte hartzeko aukera bakarra. Mundua gidatzen duten botereez hitz eginda, ekonomikoan esku hartzeko oso aukera gutxi dugu, mediatiko erraldoietan ere ez.

Alderdiren batean ikusiko al zaitugu berriro?
Alderdiak beharrezkoak dira, baina ez da derrigorra batean egotea politika egiteko. Egunero hartzen ditugu erabaki politikoak; horrekin pozik nago, ez daukat alderdi politiko bateko hautagai izateko beharrik. Nire pasioa erabakiguneetan egotea da, are gehiago, horiek bakearekin, giza eskubideekin eta biktimen egoera hobetzearekin zerikusia badute.

Hauteskundeak datoz, herrian hobetzekorik?
Gauza batzuk egin dira, beste batzuk egiteko daude. Zaborren jasotze sailkatua hobeto egin zitekeen, jatetxe eta abarrekin landu... Gero, herri bideen berreskuratze-lanak; eta urgentea, kofradia zaharraren egoera. Esango digute ez dela Udalaren eskumena, baina batena ez dela, bestearena ere ez... Horrelako eraikin historikoak usteltzen uzten dituen herria izan behar al dugu?

ALAIN IRAZU

"DATORREN URTERAKO, BERLIN"

Patinarekin zenbait kirol probetan, tartean Behobia-Donostian, izandako emaitzengatik agertu da hedabideetan. Gizakia egoera gogorrenei gailen daitekeenaren eredu da, hanka bakarrarekin egiten baitu bai kirola bai eguneroko bizimodua. Ohikoa da Getariako kalean gora eta behera ikustea, herrian erabat integratua baitaga amaroztarra.

TESTUA
IURE EIZAGIRRE

Noiz etorri zinen Getariara?
Dagoeneko galdua dut kontua baina hamairu-hamalau bat urte.

Nolatan?
Festa batzuetan andregaia ezagutu nuen. Honantz etorri nintzen udan eta negua iritsi zenean hemen geratu nintzen. "Ikusiko duzu, udan ez da asko nabaritzen baina negua iritsitakoan esango dute 'hara, eta hemen gelditu den hau zein da?'", esaten zidan. Udan errazagoa da hemen oharkabean ibiltzea; negu aldean, hotzarengatik-eta jende gutxiago dagoenez...

Betidanik izan al zara kirolaria?
Ez, hogei urtera arte bizikletan joaten nintzen alde guztietara eta asteburuan lagunekin eskalatzera. Bestela, kirolik ez.

Adin horrekin istripua izan nuen, auto istripu bat, eta hanka galdu nuen. Gerrikorik ez neraman eta atzeko beiratik atera nintzen.

Orduan ezagutu nuen Kemen Pertsona Ezinduen Kirol Kluba. Kirol ezberdin asko egiten dituzte eta haiekin hasi nintzen eskiatzen, eski alpetarra egiten nuen. Aurrez sekula ibili gabea nintzen baina gustatu zitzaidan. Gero, errepideko bizikletan, saltaka...

Horrek asko lagundu dit hau aurrera eramaten, egoera bera edo beretsua duen jendea ezagutzen.

Itzul gaitezen une hartara. 20 urterekin istripua izan zenuen, nola irudikatzen zenuen bizitza? Zer egin?
Nahiko positibo hartu nuen hasieratik. Istripua nik neroni eragin nion, euritan, azkar ibiltzen nintzelako; gertatutakoa irentsi beharra neukan. Buelta eman edo zulora joango nintzen; buelta eman nion.

Alain Irazu.

"Ematen du ez zaidala batere kosta izan, 24 urte pasa dira eta gauzak ahaztu egiten dira"

Alain, patinarekin eta Behobia-Donostian irabazitako txapelarekin.

Asko lagundu zidan kirolak. Hasieran gogorra izan zen protesia eta urratuengatik, oinez ikasi beharragatik... Gaur egun ematen du ez zaidala batere kosta izan, 24 urte pasa dira eta gauzak ahaztu egiten dira. Orain protesia jartzea egunero zapata janztea bezala da niretzako, baina hasieran, noski, gogorra izan zen.

Eskiatzen hasi zinela esan duzu, kateatu zintuen, nolatan patinetarako jauzia?
Uda iristean beti gelditzen nintzen eskiko kontuarekin, gogoarekin, kateatua. Hotzeko zerbait egitea pentsatzen nuen etengabe, zer edo zer artifiziala, Txuri Urdinera joan edo... Buruan izan nuen urte pila batean baina ez nuen ezer egin.

Gerora hasi nintzen ate batzuk jotzen: Txuri Urdinen... Lagun batek esan zidan gurpiletan proba nezakeela eta andreak ere asko animatu ninduen bera gaztetan ibilitakoa zelako.

Lehenengo aldian koinatuari patina hartu, protesia kendu, eta makulu batzuekin aurrera egin nuen, frenatzen ere ez nekiela.

Gero Tolosara joan nintzen, klase batzuk hartzera. Orduan hasi nintzen frontoietan kono batzuekin ibiltzen. Hortik, pixkanaka, bide gorrietara eta kilometroa apur bat luzatzera.

Zein modalitatetan ibiltzen zara orain?
Normalean, abiaduran. Nik ez dut hartzen abiadura bi hankakoek bezala baina modalitateari hala deitzen zaio. Gurpil handiak erabiltzen dira, eta kilometroak egitea da asmoa.

Hemen proba dezente egiten dira: 10 kilometrokoak, 15ekoak, 20koak, hainbat maratoi... Batzuetan hartzen dut parte.

Proba hauetan ezagutu al duzu inor zure egoera berean?
Bat ezagutu nuen, orain dela urte batzuk, Parisekoa. Gonbidatu nuen Behobia-Donostiara baina ez zen oso ondo atera.

Geratu ginen elkarrekin egingo genuela proba osoa; nik aurreko urtean egina nuen eta berak ere nahi zuen. Bidean gelditzen joan ginen, berak ura edateko eta abar. Kaputxinoak pasata, alde egin zidan, aurretik joan zen. Nik ezin izan nion segi eta hor gelditu zen gure harremana.

Gerora egon al zara berarekin?
Frantsesa da eta nik frantsesik ez dut egiten. Topo egin dugu baina hitz egin ez. Azkenekoz iaz egon nintzen, Le Manseko 24 orduetan, bera bere taldearekin eta ni nirearekin; hor gelditu da.

Pena da, ze nik ezkerreko hanka daukat, 42 zenbakia, eta berak eskuinekoa dauka, zenbaki bera. Edukiko genukeen patinak aprobetxatzea.

Behobia-Donostia aipatu duzu. Nola erabaki zenuen horretarako prestatzea?
Ez zitzaidan niri bururatu. Getaria eta Zarautz arteko pasealekuan ibiltzen nintzen. Zarautzera autobusa hartu eta patinean etortzen nintzen, sei bat aldiz geldituta. Pentsa hortik Behobia-Donostiara zenbateko saltoa dagoen!

Eskiko lagun batek esaten zidan egin behar nuela. Erotuta zegoela erantzuten nion, ez zela elurretan bezala, 20 kilometro egiteko makuluari eman eta eman egin behar zitzaiola, aurretik asko ibili behar zela.

Orduan ez nuen sinesten, baina ibili, ibili eta ibili, luzatu, luzatu eta luzatu, lehen Behobia-Donostia egin nuen, eta euritan.

Euriak zein zailtasun erantsi dakar?
Gehiago irristatzen da gurpila. Lehorra dagoenean, aldapan behera gehiago disfrutatu dezakezu kurbetan eta slalom pixka bat eginez. Bustian, zuzen jaitsi behar duzu, abiadura handiagoa da, baita irristatzeko ere. Goraka egiteko makuluei motzean eragin behar diezu, arraunean bezala, luze eman eta irristatuz gero, arrisku handia dagoelako.

Aurten Behobia-Donostian euririk ez, baina erori egin zinen.
Bai, kasualitatea. Aldapa behera, Gaintxurizketa igo ondoren Errenteriara bidean, aldapa handiena jaitsi ondoren, zimurtsu zegoen lurra eta hankan dardara handi samarra neukan. Ezin nuen gehiago jasan eta makuluarekin lurra ukitzean, honek atzera egin eta kontrola galduta, arrastaka joan nintzen lurrean.

Denbora pixka bat galdu genuen DYAkoek eta koinatuak zauriak garbitu bitartean. Hortik aurrera orduari gutxiago begiratuta, proba bukatzera joan ginen. Hala ere, pozik bukatzeko aukera izanda.

Le Manseko 24 orduez hitz egin duzu lehen, zertan datza proba hori?
24 orduz Le Manseko zirkuituan, Frantzian, motorrek eta kotxeek egiten duten pista berean, patinetan ibiltzea da. Taldeka, banaka edo binaka egin daiteke, kategoriarik gabe. Oso polita da.

Sirenak jotzean, korrika patina janztera joan eta proba hasten da. Buelta bakoitzero, normalean, ematen zaio erreleboa lagunari. Horrela hurrengo egunera arte.

Guk azkenekoan hamarreko taldea osatu eta disfrutatu egin genuen. Duela bi urte, laukoarekin, gehiago sufritu genuen.

Alain, aurtengo Behobia-Donostia lasterketan.

Berlingo maratoia duzu erronka.
Maratoiak badaude baina ez ditut egiten, maratoi erdiren bat baina hau berezia da. Oso laua da, errekorrak egiten dira eta niretzako ere oso ona izango da, zabala, asfalto onarekin... Gehienezkoa parte-hartzea 10.000 patinatzailekoa da, imajinatu ze astakeria!

Orain, Behobia-Donostiaren ondoren, geldialdi txiki bat egingo dut gurpil handiekin baina datorren urterako, Berlin.

Erabiltzen duzun materialak berezitasunik ba al du?
Bai, bai. Patinaren gurpilak bigunagoak dira zimurtsurako eta bustirako, bestela pittin bat gogorragoak. Gurpil handiak, txikiagoak, gogorrak, bigunak daude; patinak ere karbonozkoak, plastikozkoak; patin eta gurpilaren arteko txasisa aluminiozkoa edo karbonozkoa... gauza pila bat alda daitezke.

Makuluak, bestalde, karbonozkoak dira, oso gutxi pisatzen dute eta atzerakako forma dute, bultzadarentzat. Goma normala da baina hor ere badaude bigun edo gogorragoak.

Materiala lortzeko laguntzarik ba al daukazu?
Dena nire kabuz egin dut, eta dendara joanda patinak ere ezker-eskuin erosi behar izan ditut. Orain deitu egin didate eta patin etxe batek jarriko dizkit patina, gurpilak, arropa... Beraiek, trukean, nire argazki batzuk erabiliko dituzte.

Ketak kirol egokituaren atala jarri berri du martxan, proposamenik heldu zaizu?
Bai. 20 urterekin ibili nintzen lehiaren saltsa horretan, orain pixka bat kanpo geratzen naiz. Nahi dudana da disfrutatu eta etxekoekin egon.

Egunerokotasunean protesi batekin ibiltzen zara. Kirol materialean bezala, 24 urte hauetan ezagutuko zenuen eboluziorik, ezta?
Bai, bai. Izan nuen lehenengo protesia hidraulikoa zen baina gero ahokadurak betikoak ziren, sartzeko ziri batekin. Orain poltsa batzuk daude, sartzeko errazagoak, eta ahokadurak karbonozkoak dira, atzetik irekiak, bigunak, esertzerakoan izterra sentitzeko.

Ahokadurak ari dira aldatzen, protesiak aspalditik daude berrituta, baina prezioak astakeria dira.

Ez al dago laguntzarik?
Bai, Osakidetzak hiru urtetik behin aldatzeko ematen du laguntza. Hala ere, ez da heltzen ahokadura bat erosteko. Oinarrizkorako iristen da, baina nik ez dut asmatzen horrekin kalean ibiltzen; Getarian, aldapa hauekin, gutxiago.

Egokituta al dago herria?
Aldapak daude, niri kosta zitzaidan hasieran, baina bestela ondo dago. Elbarritu plazak ere dezente daude. Halere, ez dira oso ondo erabiltzen: iluntzean, udaltzaingoa ez dagoenean, jendeak nahi duen bezala aparkatzen du hurrengo egunera arte. Gainera, askotan, auto bat, elbarritasun txartela izanda, sartzen dute aparkaleku hartan eta astebetean edo gehiagoan ez dute mugitzen. Hori ez da horrela, txandatzeko dira.

Nolakoa da zure egunerokoa?
Gureaken egiten dut lan. Gurasoek jatetxe bat zuten eta han aritzen nintzen. Egoera berean zegoen lagun batek aipatu zidan bera gasolindegi batean zebilela. Probatzera joan nintzen, hilabetez, eta oraindik gasolindegian jarraitzen dut. 11 urte Tolosan egin nituen, zortzi Aginan eta, orain, lau Lasaon, Azpeitian. Goizez egiten dut eta kontuak eramaten ditut: eskariak, egutegiak...

Goizean igerilekura joaten naiz astean hiru aldiz gutxienez; eguerdiro, normalean, patinetan ibiltzera. Arratsaldean, berriz, semeak eta...

elan euskadi
ONGD - GGKE

Migranteen karabana

Milaka pertsona doaz karabanan Erdialdeko Amerikatik Estatu Batuetara. Hondurasekoak dira taldekide gehienak. Jatorriko herrialdeak atzean utzi dituzte, bertako biolentzia eta miseriari agur esateko asmoz. 200 pertsona inguruk hasi zuten ibilbide hau, baina bidean jendea gehitzen joan da eta azken egunetan, 7000 pertsona inguru izan daitezkeela diote hedabideek.

Lau gauza motxilan hartuta, oinetako egokirik gabe, ume txiki eta pertsona heldu milaka arriskuri aurre egiteko prest daude hasi duten bidaia honetan, beraien jatorrizko inguruan uzten dituzten arriskuak larriagoak iruditzen zaizkielako. Eguneroko bizitza zailagoa egiten zaie: jazarpen politikoa, arazo ekonomikoak, biolentzia, etab. Egin beharreko ibilbidea: Honduras-Guatemala-Mexiko-Amerikako Estatu Batuak. Ondo ulertu dadin, Tegucigalpa (Hondurasekо hiriburua) eta Houston (AEBetako hegoaldeko hiri bat) 1.920 milak banatzen dituzte, 3.000 kilometro baino gehiagok.

Urriaren 12an hasi zuten lehenengoek bidaia. Hilabete pasa ondoren, pertsonen karabana hau osatzen duten lehenengoak iristen ari dira AEBetara, Mexiko eta Estatu Batuak bereizten dituen burdinezko hesia gainditzeko esperantzarekin.

Gehiengoaren helmuga Amerikako Estatu Batuak dira eta ez dute nahi bidean gurutzatu dituzten herrialdeetan asilorik. Mexikon geldiune luzea egin dute batzuek, eta bide batez, pentsatu eta erabakitzeko denbora hartu dute. Mexikoko estatuak, *Zure etxean zaude* programaren bitartez, errefuxiatu kondizioa onartuko zaiela esan die bidaia jarraitu gabe Mexiko hegoaldean geratzen diren pertsonei.

AEBentzat mehatxua ekiditeko helburuarekin, Donald Trump Estatu Batuetako lehendakari errepublikarrak, Amerika erdialdeko herriei laguntza ekonomikoak murrizteko mehatxua luzatu dute. Horrez gain, 5.000 militar estatubatuar zain dauzkate Mexiko eta Estatu Batuen arteko mugan Trump lehendakariaren esanetara.

Nazioarteko zuzenbideak dio estatu guztiek dutela beste herrialdeetatik datozen pertsonek egindako asilo eskaerak entzuteko betebeharra, jatorrizko herrialdean bizitza arriskuan izan dezaketela frogatzen bada.

Ibilbidean zehar laguntza humanitarioa jasotzen ari dira, botikak, janaria, arropa ematen dizkiete, edo dituzten zauriak sendatzen dizkien profesionalek artatzen dituzte, besteak beste.

Urte luzeetan, isilpean egon diren Honduras, El Salvador edo Guatemalako migratzaileak notizi bihurtu dira nazioartean pertsonen karabana osatu eta milaka lagunek beraien ametsak lortzeko bidea elkarrekin hasi dutenean. Gure gizartean nahiko arrotzak egiten zaizkigu jatorrizko herrialdeetan jasaten dituzten egoerak: gerrak, jazarpen politikoa, lapurretak, mafiak... baina gertukoak egiten zaizkigu karabana honetako pertsonek edo Mediterraneo itsasoa pateretan zeharkatzen duten pertsonen arriskuak. Ea hurbiltasun horrek suspertzen gaituen eta herrialde txiroenen egoera hobetzeko benetako pausoak ematen hasten garen!

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

Askizuko Serora

Serora. Hitz hau entzutean gehienoi mojak etortzen zaizkigu burura, harritzekoa ez dena, seroren betebeharrak aurrera eramaten zituzten beharginak serora izenez ere ezagunak baitziren Hegoaldean. Iparraldean gai honi beste trataera bat eman izan zaio egun arte, baina Hegoaldean zentratuko gara lerro hauetan, Getariako bitxikeria bat aztertzea baitugu helburu, Askizuko baselizakoa zehatzagoak izanda. Hitz gutxitan esanda, XIX. mende aurretiko serorek erlijiotasun herrikoiaren erritu eta sinesmenen gordailu lanak egiten zituzten, eraikinen zainketa fisikoa eta espirituala barne. Autonomia ekonomiko osoa zutela ezin da aipatu gabe utzi, batzuek onura askorik atera ezin arren, beste batzuek etekin izugarriak ateratzeko gai izan zirelarik.

XVII. eta XVIII. mendeetan eman zen aztergai daukagun figura honen desagertze/debekatze prozesua Larrañagaren arabera (Larrañaga, 2016). Ordura arte, erakunde publikoen aldetik zeukaten babes eta bultzada desagertuz joan zen, ez solik erakunde erlijosoek baizik eta instituzio zibil nagusiek ere babes instituzional trinkoa eskaini izan baitzioten XVI eta XVII. mendearen hasiera bitartean. 1769. urtean eman zen Hegoaldeko seroren debekua Errege Dekretu baten bidez. Debekuaren ondorengo hamarkadetan ezkutuan ibili omen ziren, zenbait guneetan ezinbesteko bilakatu baitziren urteen poderioz.

Askizuko San Martín baseliza. / Arg.:www.euskadi.eus.

XIX. mendetik aurrera hauen presentzia berriro ere agertzen joango da publikoki landa eremuetan, baina figura guztiz laikoa bihurtu zela esan daiteke, abitua ahaztuz. Hori argi ikusten da Askizuko San Martin baselizako seroraren 1855eko izendapenean.

1855eko ekainaren 6ko udal aktari so egiten badiogu, Maria Dominga Guetaria izeneko emakume baten eskaria aurkezten da. Eskaeran bertan, lehen lerroan ikus daiteke nola ordurako seroren lanbidea alor laikora mugatzen zen, "*sirvienta*" eta serora hitzak baliokide modura erabiltzen baitira. Bertako Erretorearen aginduetara zerbitzari modura lan egiteko eskaera da Maria Dominga Guetariarena, aurretik serora lanak egiten zituen Maria Cruz Larrañagaren heriotzaren ondorioz.

Mahastiz inguratutako eraikina denez, bere garaian, eraikina bera zaintzeaz gain, mahastien zainketan eta ustiapenean nahikoa lan izango zutela pentsa daiteke.

BIBLIOGRAFIA:
- LARRAÑAGA, Mikel Martin (2016): Serorak Euskal Herrian: Ikuspegiak, hastapenetatik desagerrarazterarte (Antzinate Berantiarra-XVIII. mendea) (Doktoretzat tesia), EHU.

udalsarea21

Itsas hondakina

Itsas hondakinen kontzeptuan sartzen ditugu "itsas giroan botatako edo utzitako manufakturatutako edozein objektu solido iraunkor"; horren barruan sartzen dira lur eremutik itsas ingurura garraiatutako edozein gai, bai ibaietatik, jariatzetik, amildegitik edo haizearen eraginez.

Itsas hondakinak zenbait materialez osatuta daude, gehienbat hauez: plastikoa, metala, egurra, kautxua, beira eta papera. Material hauen arteko proportzioa alda daiteke lekuen arabera, baina garbi esan dezakegu plastikozko hondakina dela, tarte handiarekin gainera, gehien azaltzen dena.

Plastiko gehienak oso erresistenteak dira eta itsasoan luzaro irauten dute, seguruenik ehundaka urteetan zehar. Plastikoak ere degradatu egiten dira, eta ingurugiroan zatitxotan zabaltzen dira.

Itsas zaborra ez da soilik estetika arazoa. Gizartean eta ekonomian eragin handia izateaz aparte, osasun publikoa eta segurtasuna arriskuan jar dezake eta itsas-organismoan eta itsas-habitat ezberdinetan eragin negatiboak sortzen ditu.

Itsas hondakinen kontrako herritarren dekalogoak itsas hondakinen aurrean herritarrak kontzientziatu nahi ditu, eta, aholku gisa, zenbait ekintza eskaintzen dizkie itsasora iritsi daitekeen hondakinen kopurua murrizteko, eta horrela lortu, denon artean, hondakinik gabeko itsasoa. Itsasoen egoera ona lortzeko borondatezko zenbait jarduera gauzatzean datza dekalogora atxikitzea.

Dekalogoa:

- Globalki pentsatu, herri mailan aritu eta zure ardura onartu. Gure portaera garrantzizkoa da itsas-zaborraren arazoari aurre hartzeko.
- Garbitasunerako produktuak zakarrontzian utzi, ez bota inoiz komunetik.
- Arrantzatzea gustuko baduzu, eroritako arrantza-tresnak jaso itzazu.
- Arduraz kontsumitu: informa zaitez eta erabaki ezazu.
- Kontsumo-ohituretan hiru arauak jarraitu: murriztu, berrerabili eta birziklatu.
- Naturaz arduratsu disfrutatu.
- Giza zientziara lotu zaitez: aurrea hartzeko beharrezkoa da informatzea. Guztiok jar dezakegu gure alea itsas zaborrei buruz gehiago jakiteko.
- Itsasertzetik ibiltzerakoan aurkitzen den hondakina jaso dezakegu.
- Nabigatzerakoan itsasora hondakinik ez bota.

Informazio gehiago:
Tel. 943 896024
www.urolakosta.org
maizpuru@getaria.org

GARBIÑE IBARBIA

Barne diseinuko azken joerak

Gaur, Valentziako *Habitat* azokan ikusitako dekorazio eta barne diseinuko azken joerak ekarriko dizkizuet. Hemen dituzue hango berrikuntzak; ea gustatzen zaizkizuen.

Egurrezko altzarietan ingurumenarekiko erantzukizuna nabarmena da materialetan. Egur zertifikatu eta iraunkorrak aurkeztu dira; intxaur egurra haritza baino gehiago erabiliko da, ingurune irizpideak tarteko.

Duela gutxi arte, portzelanazko materialak eta sinterizatuak sukalde eta komunetan ikusten genituen; orain, berriz, sukalde edo egongeletako mahai gainetan ere erabiliko dira, dituzten propietateak aprobetxatuz.

Formari dagokionez, diseinu klasikoen aldeko apustua egin da, gehien bat, *Art Deco*aren aldekoa —hogeigarren mende hasierako dekorazio estiloan oinarritzen da—. Berriz interpretatu eta eguneratzen ditu erreferentzia klasikoak; noski, begirada berri batekin. Gaur egungo gustu eta beharretara egokitutako altzariak diseinatzen dira. Horrela, altzari sofistikatu, elegante eta luxuzkoak aurkeztu dira azokan.

Estalkien joerak aldatu egin dira. Kolorea eramango da: gorria, berdea, urdina... tonalitate guztietan, bai hormetan bai altzarietan. Sofa eta aulkietan koloredun tapizeriak erabiliko ditugu, lisoak zein jaspeatuak, goxo-goxo sentitzeko eta siesta eder bat botatzeko.

Intxaur egurra.

Koloreak datoz: gorria, berdea, urdina...

Tapizerian ere kolorea.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udal bulegoa	943 896 024
Faxa	943 140 190
e-mail:	udala@getaria.org
Kirroldegia	943 140 432
Kirol-portua	943 580 959
Taxiak	
Javier	607 720 242
Carlos	607 403 498
Udaltzaingoa	943 896 146
Liburutegia	943 896 147
Anbulatorioa	943 140 653
Botika	943 140 441
Herri Eskola	943 140 729
SOSdeiak	112
Kofradia	943 140 200

ZAINTZA EGUNAK

Abenduaren 31n.

FULDAIN FARMAZIA

Eskolan eta eskolaz kanpo ikasi eta ikasi

Iturzaetako LHko 5. mailako ikasleek ikasturte hasieratik egindako hainbat ekintzen berri eman nahi dizuegu.

Zinemaldia

Ikasturtea hasi eta laster, irailaren 27an, LHko ikasle guztiak Zinemaldira joan ginen *Paddington 2* ikustera.

Donostiara autobusez joan ginen. Belodromoan eskola guztietako ikasle eta irakasleak zeuden. Gu izkina batean jarri gintuzten eta ez genuen hain ondo ikusten, baina pelikula oso interesantea izan zen.

Belodromotik atera eta berehala, hamaiketakoa egin genuen. Ondoren, autobusez Zarautzera joan ginen bazkaltzera. Gero jolasten jarraitu genuen eta joko askotan ibili ginen.

Zarautzetik Getariara oinez itzuli ginen. Bero handia egiten zuen. Getariako frontoian denok elkartu eta lauretan amaiera eman genion irtenaldiari.

Ertzaintza

Urriaren 9an, Ertzaintzako hiru kide etorri ziren gelara, uretako eta mendiko arriskuei buruz hitz egitera. Lehendik ezagutzen genituen babes neurriak gogoratu zizkiguten eta gauza berriak ere ikasi genituen. Argazkiekin eta bideoekin osatu zuten azalpena.

Lurrean, uretan, helikopteroan eta txakurrekin egiten duten lana azaldu ziguten. Txakurrak laguntza handikoak dira ertzainentzat, drogak, pertsonak eta beste gauza batzuk detektatzen dituztelako. Hori dena ikusi eta gero, balorazioa egiteko galdeketa bat eman ziguten. Benetan interesgarria izan zen.

Akerregi txakolindegia

Hurrengo egunean, urriaren 10ean, Anartz gelakidearen txakolindegira, Akerregi Txikira, egin genuen bisita, haien gonbidapenari erantzunez.

Oinez joan ginen Akerregi Txikira arte. Han, txakolina eta muztioa nola egiten zuten erakutsi zigun neska batek: lehenik mahats aleak zanpatu egiten dituzte eta zukua ateratzen denean, den-dena kapsula handi batean sartu eta zukua hartzitu egiten da. Hartzitu ondoren muztioa lortzen da eta egun batzuetan aire librean egonez, alkohola harrapatzen du; horrela lortzen da txakolina. Azalpen horren ondoren, muztioa probatu eta sarreran hamaiketakoa egin genuen.

Oso ondo pasa genuen.

Ibilaldi neurtua

Urriaren 10ean ibilaldi neurtua egin genuen. Hasieran zortzi talde egin behar ziren 3. mailatik gorako ikasleekin. Helburua talde guztiak Askizura iristea zen, froga batzuk gaindituz.

Talde guztiak bost minutuko aldearekin irteten ziren eskolatik. 6. mailako ikasleek markatutako gezi horiak zeuden bidean, ez galtzeko. Bidean hamaiketakoa egin eta frogak egin ondoren, Askizura iritsi ginen eta han bazkaldu genuen. Bazkaldu eta gero denbora librea utzi ziguten; ederki pasa genuen!

Getariara bueltan, lehen ziklokoekin batera, beste bide batetik etorri ginen. Animalia batzuk ikusi genituen. Eskola aurreko parkean taldekide guztiak iritsi zirela ziurtatu eta amaiera eman zitzaion ibilaldiari.

EITB-Eureka

Goizean, 09:30ean, eskolan autobusa hartu genuen EITBra joateko. Bertan bi talde egin genituen: bat telebista ikustera joan zen eta bestea irratira.

Telebistako taldea Elenarekin joan zen eta telebistako plato batzuk erakutsi zizkien. Gero programa bat ikustera joan ziren. *Atrapame si puedes* izena zuen programak. Irratiko taldekoak, berriz, irratira joan ziren, hau da, bigarren pisura. Itsaso izeneko neska batek erakutsi zizkien irratiko gauzak. Han programa nola egiten zuten kanpotik ikusi eta erredakzioak bisitatu zituzten.

Beste taldeak alderantziz egin zuen: lehenengo irratia eta gero telebista. Gero sarrerara joan eta bi taldetakook elkarrekin hamaiketakoa egin genuen.

Hamaiketakoa jan eta gero, oinez joan ginen Eureka Zientzia Museora. Bazkaldu eta barrura sartu ginen.

Animaliak ukitu baino lehen, eskuak garbitzeko esan ziguten. Gela batera joan ginen eta han dragoi bizartsuak eta sugeak ere ikusi genituen. Ondoren libre utzi gintuzten andereñoekin beheko solairuko lau geletan. Bukatutakoan autobusa hartu eta Getariara itzuli ginen.

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta
Mantenua
Informatika akademia
Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

AITOR IRIGOIEN
BEÑAT GEREKA
MIKEL MUGIKA

Elkarrizketan: Eneko Etxegoien

Aspaldiko laguna degu. Ta haundia da elkarrekin bizi izan ditugun momentu ta bizipenen zerrenda: futbitoko partiduak, afari amaigabeak, hamaika parranda ta gaupasa, kontzertuak, pala zein mus partidak, Errealan partiduak, Baskonianak... Mutil umila da oso, bihotz handikoa, gardena. Lagun aparta, hitz txarrik gabea...

Baina marka da gero! Txapakalezkako prentsa arroxeko sekzioak eraman gaitu berarekin biltzera, itsasoko aurtengo kanpaina amaitzear den honetan. Beti bezala, bikain pasatu degu berarekin, elkarrizketa motx bat zena, arratsalde pasa bilakatuz. Plazer bat, *Etxego*!

Ez da errexa zerbaitetan bakarra izatea, ta hara! Ttak! Eneko Etxegoien, "Cuore" aldizkarian atera dan getaiar bakarra.

Ba, bai. Juxtu orduantxe Alakrana itsasontzian inguruko serie bat grabatzekotan zen Miguel Angel Silvestre aktorea, ta eztakit zeinen bitartez, gurekin jarri zen harremanetan, itsasontzi bateko bizimodua lehen eskutik ezagutu nahi zuela-ta. Bi egun egin zitun gurekin, antxotan ginala, ta etorri ta berehala lanian jarri genun *(barreak)*.

Konfiantzan: irudi eskubidetatik edo zeoze kobratu al zenuten?

Ezertxo ere ez!

M.A. Silvestre aktoria zemouz moldatu zen itsasuan? Mareatu al zan? Zuekiko jarrera ta ze mouzkua?

Oso mutil jatorra, hiztuna ta naturala iruitu zitzaiten. Uste det Castelló-koa zala jaiotzez. Ta ez zan bate mareatu. Gau guztian ez genun arrairik topatu, baina alban bai, ta antxoa harrapatzen genun bitartean, bea haiei jela botatzen jarri genun. Lan pixkat in zun!

Ta beste aldetik begiratuta, zuek kamera aurrian? Pentsatu al zenuen truke bat egitia, ta Silvestre itsasora ta zeu "Titirik gabe paradisurik ez" seriera joatea aktore gisa?

Ez, ez. Jajaja! Ez zen kamerarik etorri, bea bakarrik etorri zan, oso diskreto. Moilara ailegatu ginanian, kazetarin bat edo ixkutuan egongo zan, ze guk ez

genun inor argazkirik ateatzen ikusi. Baten batek jakingo zun gurekin zegoela ta...

In gabe utzi ezin degun galdera: Izarriko zenbat señorak komentau zizuen "Cuore"n atera zinala?
Ba, inorrek ez! Koadrilako batek ikusi zun, ta komentatu zin. Nik ezin non sinestu, harik eta aldizkaria erakutsi zian arte.

Beno, prentsa roxako hainbeste galderan ondoren, serioagotara pasako gera, herriko patroi gaztiena ere bai baitzea. Noiztik itsasuan? Ta patroi bezela?
Itsasuan, lehen aldiz 2001eko udan in nitun bi marea, proba moduan, ta 2002an patroi ikasketak egin nitun. Ondoren, 2005 ta 2015 artian, bigarren patroi bezela ibili nitzan osabekin, puentian ta kubiertan. Patroi bezela, bakarrik, osaba jubilatu zanetik nabil, hau da, 2015etik.

Zerk bultzatu zintun itsasora jutera? Txikitatik nahi al zenun hori?
Txikitan ametsa ez zen, ez! Aurreneko aldiz aitakin itsasoa jun nitzanian gustatu zitzaiten arren, ez nakan itsasuan lan iteko asmoik. Baino ikasle oso ona nintzanez *(barreak)*, ba azkenian itsasuan bukatu nun, ta oso gustura nabil orain!

Nolakua da itsasoko bizitza? Hitz gutxitan nola deskribauko zenuke?
Gustatuz gero, ez da gogorra! Konbibentzia bera da lana baino gogorragua. Zailena agian udan izaten da, etxera etorri gabe bi aste inguru pasatzen ditugunean.

Pixkat gaixtuak jarriko geaz berriz... Zein da zailagoa lehorreko ala itsasoko arrantza?
Neretzat lehorrekua!!! *(barre gehiago)*.

Parrandan ere ibilia zeala badakiu (ordu txikitan askotan ibili baikea elkarrekin, Euskal Herriko hamaika txokotan ta festetan). Kontatzia daon anekdotan bat?
Lagundu diazue pentsatzen, zuek ere ez zinaten ta urruti! Ba Elorrioko Gazte Topaguneko egunak oso onak jun zian, Igorreko festak ere bai. Ta nola ahaztu Azpeitiko parranda haiek? Ta behin, neguan, tabernatik izerditan blai atera ondoren, kamisetak kendu ta bate gabe ibili ginan gau hura?

Azkenik, futbolzale amorratua izanik, Merkeko plazan hasi ta Izarri futbito talde haundian eman zenion amaiera zure ibilbideai 2015ean. Bereziki gogoratzen dezun une edo partiduren bat?
Ba futbitoko azkenekuakin oso ondo akordatzen naiz, Izarrikin Kopako finala 5-1 irabazi baikenun. Ta duela urte pila bat Urritza taldiakin irabazi genun Kopako finala ere gogoratzen det. Hasi ta bukatu Kopa irabazten! Ta txupituak edanez ospatzen! *(barreak)*.

ANDRES ALBERDI

Danda

Ezaguna da gaur egunean ere danda. Gaztetxo batzuk erreka-bazterrak garbitzen.

Auzolan hitz ezagun eta erabiliagoaren baliokide gisa erabiltzen zuten (dute?) Askizun. *Danda* edo *auzolana* auzokoen arteko elkarlana da, eta lehen orain baino gehiago baliatzen zen lan-mota hori, orain udalek edo diputazioak egiten dituzten lanak (bide-konponketak, bide-bazterrak garbitzea, ura ekartzea...) lehen auzokoek egin behar izaten baitzituzten. "Etzi danda zegok, eta ur-depositua garbitu beharra zegok". Beste inongo hiztegitan ez, baina Placido Mujikarenean badator *danda* hitza. Bederatzigarren adierak jasotzen du guk darabilgun eran, eta honela ageri da emana gaztelaniaz: "(Gip.) *minga, trabajo o prestación (vecinal, comunal, personal), angaria, azofra, vereda*".

Askizuko Amezketa baserriko seme German Sorazuk eman digu hitz honen berri.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* - era ezagutzen dituzun hitzak.

EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

ANDRES ALBERDI

Askizuko iturriak 100 urte

Astiko iturria izenez ere ezagutzen da, izan ere, Asti baserritik gertu dago. Getariatik Askizurako bidean, Asti igarota baina oraindik baserritik gertu, Askizuko azken aldapa —duela urte batzuk arte kaltzada zena— hasten den tokian baino pixka bat lehenago dago iturria, ezkerretara, Donejakue bidea den bidexkatik hamar bat metrora.

Iturria esaten zaio, baina iturria baino gehiago dago han. Aziarregiko errekak eta beste errekatxo batek bat egiten duten puntu horretan, bidexkaren alde batean, ezkerretan, dago iturria [1. argazkia]; beste aldean animalien uraska (abereei edaten emateko aska), erropak garbitzeko lehengo harraska eta aterpetxo bat daude [2. argazkia]. Gaur egun, Askizuk ur-horniketa egokia dauka; duela zenbait urte arte, ur-depositu baten bidez hornitzen zen auzoa, eta hark huts egiten zuenean, iturri hau zen auzokoen ur-arazoen irtenbidea.

Argazkian ikus daitekeenez [3. argazkia], aurten betetzen ditu iturriak 100 urte.

Leku baketsua eta atsegina da parajea bere osoan, eta balio etnografiko handikoa. Donejakue bidean dago, gainera. Mereziko luke duen balioa aitortzea eta ingurua berritzea, eta agian, bide horretako ibiltarientzat atsedengune erakargarri bihurtzea tokia.

Iturriaren ikuspegia

Uraska, arropa garbitzeko harraska eta aterpetxoaren aurri edo hondakinak.

Iturrian grabaturik ageri den legenda (*Año de 1918*).

Askizuko Amezketa baserriko seme German Sorazuk eman dizkigu iturriaren eta parajearen inguruko argibideak.

Irakurle, emaiguzu aditzera gaurkoa bezalako erreportajetxoren bat mereziko lukeen Getariako paraje seinalaturen bat ezagutzen baduzu: *artzape@topagunea.com*. Eskerrik asko aldez aurretik.

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	12 euro
9 x 4	24 euro
13,6 x 4	36 euro
9 x 8	48 euro
13,6 x 8	72 euro
orri erdia	96 euro

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

2018ko ABENDUA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

1 Larunbata
Bertso-afaria
Ordua: *21:00*
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*
Ximon Aranguren, Libe Goenaga, Danel Olano eta Aitor Salegi ariko dira bertsotan; Ane Ezenarro gai-jartzaile.

2 Igandea
Gazte Alaiak txistulari taldearen kontzertua
Ordua: *12:30*
Lekua: *Salbatore Deuna eliza*
09:00etan goiz soinua kalez kale. Azaroa Musikaz Blairen baitan.

3 Astelehena
Euskararen Nazioarteko Eguna
Ordua: *15:15*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskola*
Plazara jaitsiko dira txistulariekin. Ondoren, bertsoak; abestiak txistuaren laguntzaz; Euskaraldiko dantza; fandangoa, arin-arina eta muxikoak. Eguraldi txarrarekin, eskolan.

Euskaraldia eta Getariako eta Euskal Herriko ezagutza eta erabilera datuak oinarri, norberak bere baitan hausnartu eta partekatzeko gunea sortuko da.

4 Asteartea
Tailerra: *Etxearen alorrean energia hornidurei buruz jakin behar duzuna. Gizarte bonoari buruzko informazioa*
Ordua: *17:30-19:00*
Lekua: *Getariako Jubilatu eta Pentsionisten Etxea*
Antolatzailea: Getariako Udala
Kontsumobidek gidatutako saioa.

8 Larunbata
Ezkurra basotik ahora
- *10:00etan, Dojumaso basotik ibilaldia. Ezkur, landare eta abarren berri emango du Cesar Lema Costak.*
- *Jarraian, Basare baserriko baratzean landare eta kosmetikoen azalpena.*
- *12:00etan, "Manual de cocina bellotera para la era postpetrolera"-ren aurkezpena.*
- *Ondoren, mokadua: ezkurrarekin egindako ogia, kafera, gaztain-jana...*
- *Goizean zehar, musika Anarkronikusen eskutik.*

Antolatzailea: *San Prudentzioko Lagunak.*

15 Larunbata
Gabonetako apaingarri tailerra
Ordua: *12:00*
Lekua: *Berdura plaza*
Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Taldea*

San Tomas eguna
Ordua: *12:00*
- *Eguerdian festa giroa: talo eta txorizo-jana, musika...*
- *18:00etan, Gabonetako kanten entsegua*
- *Ondoren, txokolate beroa*

Antolatzailea: *Gure Txeru*

III. Bertsiyo Gaua
Ordua: *22:00*
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

16 Igandea
Gabonetako kantaldia
Ordua: *13:00*
Lekua: *Salbatore Deuna eliza*
Musika Eskola, Getariako Abesbatza eta Gazte Alaiak txistulari taldea.

Antzerkia: *Zoaz pake santuan*
Ordua: *19:00*
Lekua: *Iturzaeta Eskolako aretoa*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Txalo konpainiaren lanak Ane Gabarain eta Mikel Laskurain ditu protagonista. Sarrerak 5 eurotan informazio bulegoan abenduaren 3tik aurrera.

17-19 Al.-Az.
Musika Eskolako matrikulazioa
Ordua: *16:00-19:00*
Lekua: *Musika eskolako bulegoan*
Emailez: elkanomusikae@gmail.com

Musika Eskolako entzunaldiak
Ordua: *18:00*
Lekua: *Musika eskolako perkusio gela*

20 Osteguna
Katukale taldearen saioa
Ordua: *18:30*
Lekua: *liburutegia*
Danele Sarriugarteren "Azala erre" aztertuko dute.

Oinarrizko formazio feminista tailerreko hirugarren saioa
Ordua: *18:30-20:30*
Lekua: *Alhondiga*
Emagin Ikerketa eta Formazio Feminista da dinamizatzailea. "Nola zaindu elkar?" aztertuko dute.

21 Ostirala
Donostiako San Tomasera irteera
Antolatzailea: *Getariako Jubilatu eta Pentsionisten Etxea*

22 Larunbata
Irakurketa tailerra, jolasak eta eskulanak
- *Goizean, irakurketa tailerra 3-8 urtekoentzat, Alhondigan.*
- *Arratsaldean, jolasak eta eskulanak 6-12 urte artekoentzat kiroldegian.*

Antolatzailea: *MUko LEINN*

Gabon kanten entsegua
Ordua: *18:00*
Lekua: *Gure Txeruren lokala*

24 Astelehena
Olentzero eta Mari Domingiren etorrera
Ordua: *18:30*
Arratsaldean herriko taldeak kalez-kale kantari

26 Asteazkena
***Erradikalak gara* ikuskizuna**
Ordua: *20:00*
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Getariako Eskubide Sozialen Karta*

28 Ostirala
Poker txapelketa
Ordua: *16:00*
Lekua: *gaztetxia*

29 Larunbata
Pala txapelketa mistoa solasaldia
Ordua: *10:00*
Lekua: *frontoia*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

30 Igandea
Ugandako AF NDANCE taldearen emanaldia
Ordua: *19:00*
Lekua: *Iturzaeta Eskolako aretoa*
Sarrerak informazio bulegoan eta www.ticketea.com. Emanaldia bi zatitan banatuko da: dantza lehenengoan, antzerkia eta musika bigarrengoan.

31 Astelehena
San Silbestre kros herrikoia
Ordua: *12:00*
Antolatzalea: *Getariako Udala eta Kirolgune*